


ZUHAITZ ZAHARREN ZORTZIGARREN ARGAZKI LEHIAKETA



AMIGOS DE LOS ÁRBOLES VIEJOS / ZUHAITZ ZAHARREN LAGUNAK elkarteak Zuhaitz Zaharren Zortzigarren Argazki Lehiaketa antolatzen du.

Lehiaketa honen bitartez zuhaitz zaharrekiko eta bertan bizi diren animalia eta landareekiko behaketa, interesa, jakinmina, maitasuna eta errespetua zabaldu nahi ditugu, baita beraien inguruan sortu diren tradizio eta ohiturak ere.




12 argazki hautatuko ditugu 2016ko egutegia osatzeko. Egutegia salmentan jarriko da zuhaitz zaharren balio naturala zabaldu eta elkartea ezagutarazteko. Aurreko urteetan bezala, estatuko argazkilariez gain, Frantzia, Bretaña Handia eta Alemaniako argazkilariek ere parte hartu ahal izango dute.

Elkarteari buruzko informazio gehiago nahi izan ezker www.arbolesviejos.org edo

<http://www.facebook.com/arboles.viejos> webguneetara jo dezakezue.

<http://arbolesviejoscalendario.blogspot.com.es/>



LEHIAKETAREN ARAUAK

PARTEHARTZAILEAK: 18 urtez gorako pertsona orok parte har dezake.

ARAUEN ONARPENA: Lehiaketan parte hartzeak arauen onarpena dakar.

ARGAZKIAK:

Partehartzaile bakoitzak 3 argazki aurkez ditzake gehienez ere.

Aurkeztutako argazkiak aurretik argitaratu gabekoak izango dira.

IZENEMATEA: Izenematea dohako da.

ARGAZKIEN FORMATOA:


Argazkiak formato digitalean aurkeztuko dira, argazkiaren gutxieneko tamaina 4330x2880 mm-koa izango delarik.

Lehiaketarako tamaina txikiagoko kopia bidal daiteke. Argazkia irabazle suertatu ezker partehartzaileak 1. puntuan aipatutako tamainako argazkia bidaliko du, argitaratua izan dadin.

Partehartzaileak ez badu tamaina egokiko argazkia bidaltzen emandako epean deskalifikatuta geratuko da.

GAIA: zuhaitz zaharrak, edota beraiekin harremana duten espezieak, animalia zein landareak.

ARGAZKIARI ATXIKITUTAKO INFORMAZIO TESTUA: Nola daude zuhaitz hauek? Non daude? Norekin daude? Zer transmititzen digute?



AURKEZTEKO EPEA: Argazkiak 2015ko urriaren 1etik 31ra aurkeztu ahal izango dira.

LANEN AURKEZPENA: Argazki bakoitza dagokion fitxarekin batera aurkeztuko da (testuaren bukaeran atxikituta), bertan egilea eta zuhaitzaren datuak jasoko dira. Lehiaketa anonimoa izan dadin, argazki bakoitzari kode bat egokituko zaio.

IGORPENA: Argazkiak posta elektronikoz soilik bidaliko dira ondoko helbidera concursoarbolesviejos@gmail.com

EPAIMAHAIA: Epaimahaiak sormena, originalitatea, argazkiaren kalitatea eta teknika, eta proposatutako gaiari egokitzea baloratuko ditu. Zuhaitz zaharrekiko eta ingurumenarekiko errespetua mantentzen ez duten argazkiak deskalifikatuta geratuko dira.


LEHIAKETAREN EBAZPENA: irabazleei posta elektroniko bidez jakinaraziko zaie lehiaketaren ebazpena eta baita argazkia egutegian argitaratzeko tamaina egokian bidaltzeko duten epea ere.

SARIAK: saritutako argazkiak Zuhaitz Zaharren 7. Egutegian argitaratuko dira, eta irabazleei ale batzuk emango zaizkie.

- "Azal" saria: saritutako argazkia egutegiaren azalean agertuko da.

- "Hilabete" saria: saritutako argazkiak hilabete ezberdinetan agertuko dira.

Argazki guztiak egilearen izenarekin eta atxikitutako informazioarekin argitaratuko dira.



SARI BANAKETA: Nafarroan eta inguruko herrietan bizi diren partehartzaileei saria jasotzeko deialdia egingo zaie. Gainerako lehiakideei posta bidez bidaliko zaie saria.

ERREPRODUKZIO ESKUBIDEAK: partehartzaileek aurkeztutako argazkien erreprodukzio eskubidea dohainik emango diote amigos de los árboles viejos/zuhaitz zaharren lagunak elkarteari, dibulgazio, hezkuntza eta formakuntzarako. Elkartearen webgunean edo bestelako hezkuntza material bezala argitara daitezke (ikus www.arbolesviejos.org).

AURKEZTUTAKO IRUDIEN ESKUBIDEAK:

Partehartzaileak ziurtatzen du bera dela argazkiaren egile bakarra eta irudiaren jabetza intelektualaren eskubide guztiak dituela.


Egilearen ardura izango da argazkian ager daitezkeen pertsonen baimena jasotzea, argazkia lehiaketan aurkezteko. Egileak bere gain hartuko ditu irudi eskubideak direla eta aurkez daitezkeen kexak.

Argazkia erabiltzeko eskubidea lehiaketa eta dibulgazio alorretarako izango da soilik (elkarreak antolatutako erakusketak, hitzaldiak,...).

Irabazleek beraien izena egutegian eta dibulgazio materialetan agertzeko baimena ematen dute.

Elkarreak argazkiak beti egilearen izenarekin batera argitaratuko direla bermatzen du.

DATU PERTSONALEN BABESA: Partehartzaileen datuak lehiaketaren ebazpena jakinarazteko eta dagokien saria bidaltzeko erabiliko dira soilik, ez zaizkio beste inori emango.



ARGAZKI IDENTIFIKAZIO FITXA:

EGILEAREN IZEN-DEITURAK:

KODE POSTALA:

KORREO ELEKTRONIKOA:

ARGAZKIAREN KOKAPENA:

ARGAZKIAREN DATA:

ESPEZIEA:

ARGAZKIARI BURUZKO INFORMAZIO TESTUA; gai aipagarriak, tradizioak, kondairak, adierazten dizkiguten ideiak, impresioak, etab.

Fitxa bana beteko da argazki bakoitzarako, gehienez 3 egile bakoitzarako.

Kokapena, data eta espezia bidalitako argazkiarenak dira.

Kopia eta bidali ezazu fitxa hori zure argazkiarekin batera concursoarbolesviejos@gmail.com helbidera.